



Europako
Batzordea



Azalean

EB-K EMAKUMEEN ALDE GARATZEN DUEN JARDUERA

2020ko otsaila

Emakumeen eta gizonen berdintasuna **Europar Batasuneko (EB) funtsezko balioetako bat** da, Erromako Itunetik bertatik (1957) datorrena. Itun hartan ezarri zen, hain zuzen ere, lan berdinerako ordainsari-berdintasuna aldarrikatzen duen printzipioa. Harrezkero, genero-diskriminazioari aurre egiten jarraitu du EBk, eta, gaur egun, emakumeentzat munduko lekurik seguruenetakoa eta parekideenetakoa da Europa.

Alabaina, oraindik ere beharrezkoa da emakumeen eskubideak defendatzeko eta babesteko borroka egitea. Emakumeek berdintasuna, ahalduntzea eta segurtasuna izan behar lituzkete Europan; hala ere, eskubide horiek gaur gaurkoz ez dira betetzen emakume gehiegiren kasuan. Estatistiken arabera, politikan eta enpresen munduan emakumeek ordezkaritza txikiegia dute erabakiak hartzen dituzten lanpostuetan, eta, oraindik ere, gizonen ordainsariak baino % 16 gutxiago jasotzen dituzte batez beste, Europar Batasunean. Genero-indarkeria eta jazarpena oraindik oso zabalduta daude.



EUROPAR BATASUNAREN JARDUERA

Honako hauek dira EBren helburuak: lantokian emakumeei gizonen aukera berak eskaintzea —esate baterako, ordainsari berdin— eta gizonen nahiz emakumei laguntza ematea lanaren eta bizitzako beste arlo batzuen artean oreka handiagoa lor dezaten.



Funtsezko beste lehentasun bat ere badago: emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria deuseztatzea, eta EBn nahiz mundu osoan genero-berdintasuna sustatzea. Erabakiak hartzeko lanpostuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna ere sustatzen du EBk. Europako Batzordeak eremu horietan guztietan egiten duen lanak, zehazki, genero-berdintasunerako 2016-2019ko konpromiso estrategikoa du oinarri.

ENPLEGU-AUKERAK ETA ORDAINSARIA



Generoaren arabera soldata-arrakala
2016an, emakumeek, batez beste, gizonek baino % 16 gutxiago irabazi zuten EBn



Emakume askok oraindik ez daukate independentzia ekonomiko osoa. Lan-merkatuan parte hartzeko dituzten oztopoen ondorioz eta zaintzaile gisa dituzten erantzukizunen kariaz besteak beste, emakumeek gizonek baino gutxiago lan egin ohi dute ordainpeko lanetan, ordainsari baxuagoko sektoreetan aritzen dira, eten gehiago egiten dituzte beren ibilbide profesionalan eta mailaz igotzeko dituzten aukerak baxuagoak eta geldoagoak dira. Hala, emakumei enplegu-aukera berdinak eta ordainsari berdina emateko konpromisoa dauka EBk.

2017an, EBko 20 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 66,5ek zuen lan ordaindua, 2010eko % 62,1en aldean. Gizonen enplegu-tasa 2017an % 78koa zen, eta 2010ean % 75,1ekoa. Ordainsari-berdintasunaren printzipioa jasota dago bai EBko Itunetan, bai lan-merkatuan gizonen eta emakumeen eduki beharreko berdintasunari buruzko arauetan; hala ere, arauak era egokian aplikatzea oraindik ere erronka da estatu kide guztietan.



Balioespenen arabera, 2013an gizonen eta emakumeen artean enpleguan zegoen arrakalak urtean 370.000 milioi euroko kostua zuen EBko ekonomiarako.

2017an 28 estatu kideen gainean egindako aurreikuspen baten arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobetzeak 10,5 milioi enplegu sortzeko aukera emango luke 2050. urtera bitartean, eta 1,95 eta 3,15 bilioi euro arteko bultzada emango lioke EBko ekonomiari.



2017an, emakumeen eta gizonen ordainsarien arteko arrakala ixteko ekintza-plana aurkeztu zuen EBk. Estereotipoak, bizitza pribatuaren eta bizitza profesionalaren arteko oreka eta beste gai batzuk jorratzen ditu planak, eta gobernuari, enplegu-emaleei eta sindikatuei dei egiten die, emakumeen ordainsaria modu parekidean zehaztu dadin ekintzak egin ditzaten.




EUROPAR BATASUNAREN JARDUERA GENERO-BERDINTASUNA ETA BIZITZA PRIBATUAREN ETA PROFESIONALAREN ARTEKO OREKA HOBETZEKO

Genero-berdintasuna ez da emakumeen gaia soilik; gizonak ere inplikatzeko ditu. Gizarte-eskubideen zutabe europarraren erdigunean kokatzen da, eremu guztietan emakumeen eta gizonen aukera-nahiz tratu-berdintasuna lortzeko asmoz. Lan-merkatuko partaidetza, lan-baldintzak eta ibilbideko aurrerapena sartzen dira, besteak beste, horren barruan.

EBk 2014an hartutako direktiba baten arabera, enpresa kotizatu handiek beren administrazio-kontseiluei buruzko informazioa argitaratu behar dute, aniztasunaren gaineko politikak azaltzeko: adina, generoa, hezkuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala

Baina, bizitzan, dena ez da lana eta dirua. Lanaren, diru-sarreraren segurtasunaren eta norberarentzako nahiz familiarentzako denboraren artean oreka lortzea garrantzitsua da emakume nahiz gizonentzat



Bizitza profesionalaren eta bizitza pribatuaren arteko orekari buruzko bideoa: <https://bit.ly/2tUdtPb>.

Europako Batzordeak bitzitza profesionalaren eta pribatuaren arteko oreka sustatzeko hartu duen **ekimenak** zutabeko tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen du, eta eskubide berriak sartzen ditu (edo lehendik daudenak indartu) EBn, familia-erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean egokiro orekatzen laguntzeko, eta, beraz, emakumeen enplegua bultzatzeko.

Eskubide horien barruan sartzen dira aitatasun-baimena, guraso-baimena eta familia-zaintzaileentzako baimena, bai eta gurasoentzako nahiz zaintzaileentzako lan-baldintza malguak ere.



Hainbat neurri daude ekimen honen baitan, horien bidez estatu kideei laguntza eman dakien haurdun dauden emakumeak eta familia-baimenak hartzen dituzten pertsonak ez kaleratzeko, laguntza-zerbitzuen prestazioa hobetzeko eta bigarren langileentzako desabantaila ekonomikoen gainean ekiteko.

Osasunari buruzko gaiak ere ezberdinak izan daitezke emakume eta gizonentzat. **EBren hirugarren programak honako hau du helburu osasunaren arloan:** pertsonen osasun ona eta kalitatezko osasun-arreta izateko aukera berdinak edukitzea, beren sexua edozein dela ere.



ZER EGITEN DU EUROPAR BATASUNAK EMAKUMEEI LAN-MUNDUAN LAGUNTZA EMATEKO

Emakumeen beharrizan espezifikoak hartzen ditu kontuan Europar Batasunak bere programa eta gastu-politiketan, eta Europako Gizarte Funtsak, urtero, laguntza ematen die zailtasunak dituzten milioika pertsonari, lana eskuratzeko aukerak hobetu ditzaten.

Emakumeei laneratzen laguntzeko neurri espezifikoan artean daude gaitasunak hobetzeko eta profesionalki birziklatzeko programak. Ibilbide profesionala eten ondoren lanera itzultzeko erraztasunak ematea da, era berean, Funtsaren helburuetako bat. Horretarako, haurren arretarako kalitatezko zerbitzuak eta orientazio indibiduala eskaintzen dizkie emakumeei eta, gainera, enplegu-emaitzen artean kontzientzia sustatzen du, emakumeek gaintitu behar dituzten erronken gainean. Proiektuak babesten ditu Europako Gizarte Funtsak zure herrialdean. Bere ekimenetako askok izan duten arrakastari esker, pertsonen bitzitza benetan ari da aldatzen.

EBko eskualdeetan finantzatzen diren proiektuek aukera berriak eskaintzen dizkiete emakumeei. Izan ere, negozio bati ekiteko aholkularitza, finantzaketa edo babes personalizatua lortzeko bidea ematen die. Aurkitu **programak eta proiektuak zure herrialde edo eskualdean**.

WEgate plataforma, esaterako, negozio bat martxan jarri edo handitu nahi duten emakumeentzako espazio erkidea da. Bertan, informazioa ematen da prestakuntzari, tutoretzari, aholkularitzari eta harremanetarako sareei buruz. Orobat ikertu dezakezu nola lagundu diezazuketen **maileguek eta EBko arrisku-kapitalak** negozio bat abian jartzen edo handitzen.



Horrez gain, **EB** neurriak hartzen ari da emakumeek sektore digitalean duten partaidetza sustatzeko. Horretarako, zalantzan jartzen ditu estereotipoak, gaitasun digitalen gaineko hezkuntza eta prestakuntza sustatzen ditu eta erraztasunak ematen ditu sektore honetan emakume gehiago ekintzaitzian aritzeko. European Network for Women in Digital plataforma 2018ko martxoan jarri zen martxan, sektore digitalean diharduten neskatok eta emakumeek harremanak eta elkarlana ezar ditzaten eremu horretan ideiak garatu eta esperientziak partekatzeko. Era berean, **hogeit bat enpresa teknologikok** hitzeman dute generoaren ikuspegitik orekatuak eta inklusiboak diren kultura eta lan-ingurua eskainiko dituztela.

Ikerketaren eta berrikuntzaren eremuan genero-arrakalak hausteko konpromisoa ere badu EBk. Horizonte 2020 programak, esaterako, laguntza ematen die ikerketa-erakundeei eta unibertsitatei genero-berdintasunerako planak aplikatu ditzaten. **Europar Batasunak urtero emakume berritzaileei ematen dien sariak**, bestalde, berriaz aitortzen ditu ikertzaile eta berritzaile bikainak izateaz gain ekintzaile arrakastatsuek diren emakumeak. EB, gainera, neurriak hartzen ari da, emakumeek beste sektore batzuetan duten enplegu-egoera hobetzeko; besteak beste, **garrarioen sektorean**.



ASKI DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAZ



EBn, hiru emakumetik batek jasan du indarkeria fisiko edo sexuala hamabost urte zituenetik.

Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren Inkesta, emakumeen aurkako indarkeriari buruz (2014)

Pertsona orok dauka indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea. Alabaina, emakume eta neskatuen aurkako indarkeria igotzen ari da maila globalean. Leku askotan, biktimenganako jarrerak arazoa elikatzen dute: [Eurobarometroaren 2016ko inkesta](#) baten arabera, emakumeen aurkako indarkeria oraindik ere onartuta eta are justifikatuta dago EBko herrialde batzuetan. EBn jakinarazten den gizakien salerosketaren biktima gehienak emakume eta neskatok dira. Gizakien salerosketaren aurkako EBko legediaren arabera, nahitaezkoa da genero-neurri espezifikoak hartzea. Halaber, neurri politikoak eta finantza-programak aurreikusten ditu, estatu kideei laguntza emateko.

EBko estatu kide guztiek eta Europar Batasunak berak Europako Kontseiluaren Hitzarmena sinatu dute («[Istanbuleko Hitzarmena](#)» izenez ere ezaguna), emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria hipzide. Hitzarmenak herrialdeak behartzen ditu indarkeria-modu guztiak prebenitu eta zigortzera, biktimak babestera eta egileak prozesatzera.

**NON.
NO.
NEIN.**

EBren [NON.NO.NEIN kanpainak](#) gizonak eta emakumeak animatzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko eta [Eskubideak](#), [Berdintasuna](#) eta [Herritartasuna programaren bidez](#) biktimak babesteko proiektuak finantzatzen ditu, era berean, EBk.

Mundu-mailan, 2017an Europar Batasunak eta Nazio Batuek [Spotlight ekimena](#) jarri zuten martxan, emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria-forma guztiak ezabatzeko. EBk 500 milioi euro bideratzen ditu ekimen horretara.

BERDINTASUNA SUSTATZEA ETA ZURE ESKUBIDEAK BABESTEA



Eskubideak daukazunez gero, eskubide horiek urratu direla uste baduzu, neurriak har ditzakezu. Zure herrialdean diskriminazio-ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa nola aplikatzen den jakiteko, jar zaitez harremanetan [Berdintasunerako Organismo Nazionalen Europako](#)

[Sareko](#) dagokion kidearekin; izan ere, eremu horietan EBren legediaren aplikazio uniformea sustatzeko ezarri zen sare hori.

Urtero, genero-berdintasunak EBn duen egoerari buruzko [txosten luze bat](#) argitaratzen du Europako Batzordeak. [Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak](#) garrantzitsuak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko bidean, EBko legedia EBko herrialde guztietan era berean interpretatu eta aplikatzen dela bermatzen baitute.

[Genero Berdintasunaren Europako Institutuak](#) babesa ematen die estatu kideei eta EBri, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatu eta bermatzeko Europan zein Europatik kanpo. Institutuko [Genero Berdintasunaren Adierazleak](#) aurrerapenen jarraipena egiten du. Europako Batzordeak gizarte zibileko erakundeen sare europarrak babesten ditu, besteak beste [Emakumeen Lobby Europarra](#), [Women Against Violence Europe](#), [European Network for the Work with Perpetrators of Domestic Violence](#) eta [End FGM European Network](#). Erakunde horiek lankidetzat estua dute EBko erakundeekin, emakumeen eskubideak eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna hipzide dituzten gaietan. Halaber, zure herrialdeko erakunde esanguratsuekin harremanetan jar zaitzakete.



EMAKUMEEN AURRERAPENA POLITIKAN ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAN


Emakumeei enpresen munduan eta politikan kristalezko sabaia hausten laguntzeko lanean dihardu Europar Batasunak. Horretarako, lankidetzan aritzen da gobernu, enpresa, sindikatu eta gobernuz kanpoko erakundeekin, EB mailan jarduerak diseinatu eta betearazteko eta, hala, maila gorenetan emakumeen eta gizonen arteko oreka lortzeko. Halaber, informazioa batu eta hedatzen du, eta jardunbide onak sustatzen ditu.

2019ko abenduan, Europako Batzordeko emakumezko lehen presidentea bihurtu zen Ursula von der Leyen. Christine Lagardek Europako Banku Zentralaren zuzendaritza hartu zuen 2019ko azaroan. Hala, Bankuko buru izendatutako lehen emakumea izan zen. Emily O'Reilly da **herri europarraren defendatzailea**, eta, beraz, bera arduratzen da EBko erakundeek egiten dituzten administrazio txarreko egintzen ondoriozko erreklamazioak ikertzeaz.

EBko erakundeetan enplegua arautzen duten arauak sexuaren ondoriozko diskriminaziorik gabe aplikatu behar dira, baita ordainsarien arloan ere. Guraso- eta familia-baimenak jasotzeko eskubidea daukate langileek. **Europako Batzordeak** ez du diskriminaziorik egiten langileen kontratazioetan edo igoeretan, eta lan-giro malgua eta errespetuzkoa eskaintzen die bere langileei. Halaber, Batzordeak bizitza pribatuaren eta profesionalaren arteko oreka eta langileen ongizatea sustatzeko estrategia dauka.

Europako Batzordeko aurreko buruak, Jean-Claude Juncker-ek, honako helburu hau ezarri zuen: 2019an, Batzordearen agintaldiaren amaieran, zuzendaritzako goi- eta erdi-mailako lanpostuen % 40 gutxienez emakumeek betetzea. 2019ko urrian, zuzendaritzako kideen % 41 emakumeak ziren, 2014ko % 30en aldean.

Emakumeen eta gizonen proportzioa Europako Parlamentuan



2019ko hauteskundeetan ostean, Europako Parlamenturako diputatuen % 39,4 ziren emakumeak (2020ko otsaileko egoera).

Europako Batzordeko burua eta komisarioak



Ursula von der Leyen, Europako Batzordeko lehendakaria | **Margrethe Vestager** (lehendakariorde exekutibo) Aro Digitalera Egokitutako Europa | **Věra Jourová** (lehendakariorde) Balioak eta Gardentasuna | **Dubravka Šuica** (lehendakariorde) Demokrazia eta Demografia | **Mariya Gabriel** Berrikuntza, Ikerketa, Kultura, Hezkuntza eta Gazteria | **Elisa Ferreira** Kohesioa eta Erreformak | **Stella Kyriakides** Elikagaien Segurtasuna eta Osasuna | **Helena Dalli** Beldintasuna | **Ylva Johansson** Barne Gaiak | **Adina Vălean** Garraioak | **Jutta Urpilainen** Nazioarteko Elkarteak | **Kadri Simson** Energia

Europako Parlamenturako hauteskundeetan, emakumezko diputatuen kopurua apur bat igo zen, % 39,4raino, markak hautsita. Zazpi estatu kidetan, aulkien % 50 edo gehiago bete zuten emakumeek: Danimarka, Letonia, Luxenburgo, Malta, Eslovenia, Finlandia eta Suedia horren lekuko.



BIZIMODU HOBEA MUNDU GUZTIAN



Mundu guztian emakume eta neskatuen bizimodua hobetzea da Europar Batasunaren helburua, bere politiken bidez, bereziki genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen esparruan. Esparru horren bitartez, herrialde elkartuei lagundu nahi die EBk, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei, hautagaiei eta auzokideei, genero-berdintasunaren eremuan emaitza mamituak lor ditzaten, EBren ekintza-planari jarraikiz.

Garapenerako lankidetzan genero-berdintasuna lortzeko borrokatzen jarraitzen du EBk. Hala, lehentasunetako bat da berdintasuna, herrialde bazkideekin garatzen dituen eztabaida politiko eta estrategikoetan. Txileretik merkataritza-negoiazioen testuinguruan, esaterako, merkataritzari eta genero-berdintasunari buruzko xedapenak proposatu ditu EBk, lehen aldiz.

Ikuspegi bikoitza dauka EBk, genero-ikuspegia eta genero-neurri espezifikoak hainbat eremutan sartzeko: gaitasunak sustatzea garapen-bidean dauden herrialdeetan; emakume-elkarteak babestea; eta genero-berdintasunari buruzko informazioa zabaltzea, gidalerroen, praktika hobeen eta sentsibilizazio-jardueren bidez.

Genero-berdintasunari buruzko helburuak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan sartzeko negoziazioa gidatu du, halaber, EBk. Hona hemen bere helburuak: emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea, familia-zaintzak eta etxean egiten diren lan ordaindu gabeak aitortzea, eta osasunerako eta sexu- eta ugalketa- eskubideetarako sarbide unibertsala bermatzea. Gainera, genero-ikuspegia garapen jasangarriko helburu, xede eta

adierazle guztietan sartzeko berariazko konpromisoa ere badauka.

Era berean, garapen-bidean dauden herrialdeekin ezartzen dituzten harremanetan, politika eta praktika guztietan genero-osagai esanguratsu bat sartzeko konpromisoa hartu dute EBk eta bertako estatu kideek. Horretarako baliatzen dute, hain zuzen ere, Garapenari buruzko Europako 2017ko Adostasuna. Helburu nagusien artean daude, batetik, emakumeak eta neskatok ahalduntzeko politikei buruzko elkarrizketa indartzea, horiek garapenean eta aldaketan betetzen duten zeregin garrantzitsua sustatuz, eta, bestetik, genero-berdintasunaren neurri zehatzak areagotzea.

Azken bi urteetan, EBk 1,5 milioi neskatok eta emakume baino gehiagori eman die laguntza, emakumeen mutilazio genitalarekin lotutako babes- eta laguntza-zerbitzuen bidez. Ondorioz, 3.000 erkidegok (8,5 milioi pertsona) adierazpen publikoak egin zituzten praktika hori bazter utz dadin eskatzeko.

Mundu osoan beren eskubideen alde borrokatzen duten emakumeak ere aitortzen ditu EBk. Europako Parlamentuaren Sájarov saria jaso dute, esate baterako, Nadia Murad eta Lamiya Aji Bashar-ek (Estatu Islamiarretik bizirik atera ziren biak) eta Malala Yousafzai-k (neskatuen hezkuntzaren aldeko defendatzaile pakistandarra bera).

Gainera, EBko kide bihurtzeko lan egiten duten herrialde hautagaiek osorik aplikatu behar dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren funtsezko printzipioa. Halaber, eremu honetako EBko legedia beren egituretan txertatzeko lan egin behar dute. Batasuna handitzeko prozesuaren lehentasun bat da hori, oraindik ere.



Europa Batasunari buruzko galderarik?
Europe Direct-ek lagun zaitzake:
00 800 6 7 8 9 10 11,
<http://europedirect.europa.eu>

Argitalpen honen bertsio interaktiboa (online edukietarako loturekin) aurki dezakezu, PDF eta HTML formatuetan, hemen: <https://op.europa.eu/webpub/com/factsheets/women/es/>

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2019ko urria
Ale-kopurua: 170 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza
Internet: www.euskadi.eus
Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 · 01010 - Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: Printheus, S. L.
Lege-gordailua: LG G 00654-2020

Europako Batzordeko En portada bilduman sartzen da
© Europar Batasuna, 2020

Europako Batzordeko agiriak berrerabiltzeko politika, zehazki, Batzordearen 2011ko abenduaren 12ko 2011/833/EB Erabakian arautzen da, Batzordeko agirien berrerabilerari buruzkoa berau (Aldizkari Ofiziala L 330, 2011.12.14, 39. orr.). Besterik adierazi ezean, zilegi da agiri hau berrerabiltzea, honako lizentziaren arabera: Creative Commons Attribution 4.0 International (CC BY 4.0) (<https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/>). Agiri hau berrerabiltzea zilegi izango da, baldin eta iturria behar bezala identifikatuta badago eta edozein aldaketa adierazten bada.

EBren jabetzakoak ez diren elementuak erabili edo erreproduzitzeko, beharrezkoa izan daiteke eskubideen titularrei zuzenean baimena eskatu behar izatea. Europar Batasunak ez dauzka honako elementu hauen egile-eskubideak:

1. orriko argazki guztiak: © iStock.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco